# KIROLGI FUNDAZIOA

URTEKO KONTU LABURTUEI BURUZKO KONTU
IKUSKAPENEKO TXOSTENA 2020KO EKITALDIA

# KIROLGI FUNDAZIOA

## URTEKO KONTUEI BURUZKO KONTU IKUSKAPENEKO TXOSTENA

## 2020KO EKITALDIA

AUDYGE

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

## AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EMANDAKO URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKARITZA TXOSTENA

**Kirolgi** fundazioko patronatuari:

## *Iritzia*

**Kirolgi Fundazioaren** urteko kontuak, atxikita doazenak, ikuskatu ditugu, hau da, sozietate horrek 2020ko abenduaren 31ko datan duen balantzea, irabazi eta galeren kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoria.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek *Kirolgi Fundazioak* 2020ko abenduaren 31n duen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dute, haren garrantzizko alderdi guztietan, eta, horrekin batera, urte horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzak eta eskudiru-fluxuak adierazten dituzte, finantza-informazioaren alorrean betetzekoa den arau-esparruak agintzen duen moduan (memoriako 2. oharrean identifikatuta daudenak), eta, berariaz, hark adierazten dituen kontularitzako printzipioak eta irizpideak aintzat hartuta.

## *Iritzia emateko oinarria*

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen eta kontu-ikuskaritzak arautzen dituen arautegian oinarritu gara. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak ondoren deskribatuko ditugu, gure txosteneko Urteko kontuen ikuskaritza-txostenean auditoreak duen erantzukizuna atalean.

Fundaziotik independenteak gara, Espainiako urteko kontu laburtuen auditoretzan erabili beharreko etikaeskakizunen arabera (independentzia eskakizuna ere barnean sartuta), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz beste zerbitzurik eskaini eta ez da beste egoera edo gorabeherarik gertatu, aipaturiko araudiaren arabera eduki behar denezinbesteko independentzia zalantzan jarri duenik.

Gure iritzian, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak nahikoa oinarri egokia ematen du, gure auditoretza-iritzia emateko.

## *Nabarmen paragrafoa*

Kontu-ikuskapeneko gure iritzian eraginik ez badu ere, azpimarratu nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzek finantzatzen dutela funtsean Fundazioaren jarduera. Horregatik, ezinbestekoa da etorkizunean laguntza horiek jasotzea jarduerak jarraituko badu.

Azpimarratu nahi dugu, memoria laburtuaren 9. eta 13. oharretan adierazitakoari dagokionez, ohartarazi nahi dugu Fundazioak BEZaren kuotak itzultzeko eskabidearen behin-behineko likidazioa jaso duela 2015eko ekitaldira arte. Horretarako, 115.975,45 euroko itzulketa eskatu zen.



C/ Garibay, 21 -1º • 20004 SAN SEBASTIAN • Tfno.: 943 433 000 • Fax: 943 441 144 • audyge@audyge.com

Auditoría y Gestión Empresarial, S.L. - Sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Guipuzcoa con fecha 30-3-93, Tomo 1336 del Libro de Sociedades, Hoja SS-6642, Folio 90, Inscripción 1ª
C.I.F. B-20443842 - Inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) con el número S0979

2021eko martxoan jasotako behin-behineko likidazio horren arabera, Fundazioak 9.697,32 euroko ordainketa egin beharko luke.

Fundazioaren Batzorde Betearazleak behin-behineko likidazioari alegazioak aurkeztea pentsatu du, eta, beraz, txosten hau egiten den egunean ezin dira ebaluatu fundazioarentzako ondorio ekonomikoak. Gai honek ez du gure iritzia aldatzen.

## *Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak*

Zera dira auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak: gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi horretako urteko kontu laburtuen auditoretzan akats materiala eragiteko arriskurik esanguratsuenak. Arrisku horiek osotasunean aztertu dira gure kontu laburtuen auditoretzan eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia. Hala, ez dugu arrisku horietako bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

Egindako ikuskaritzan kontuan hartu beharreko arrisku esanguratsurik ez dagoela egiaztatu dugu gure txostenean.

## *Urteko kontu laburtuen inguruan Patronatuko kideek duten erantzukizuna*

Honekin batera doazen urteko kontuak formulatzea Patronatuko kideen ardura da, eta Fundazioaren ondarea, finantza-egoera eta emaitzak islatu behar dituzte, zorroztasunez, Espainian erakundeari aplikatzekoa zaion finantza-informaziorako arauei eta urteko kontuak iruzurren edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontuak prestatzean, Patronatuko kideen ardura da Fundazioak jarduneko entitatea izaten jarraitzeko gaitasuna baloratzea. Dagokionean, jarduneko entitateari lotutako gaiak azaldu eta jarduneko entitatearen kontabilitate-printzipioa erabili behar dute, salbu eta Patronatuko kideek entitatea likidatzeko eta eragiketak amaitzeko asmoa badute, edota beste aukera errealistarik ez badago.

## *Auditorearen erantzukizuna urteko kontu laburtuen auditoretzaren harira*

Gure helburuak: urte kontuek, osotasunean, hutsen baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik ez dutelako arrazoizko segurtasuna lortzea, eta gure iritzia jasotzen duen ikuskaritza txostena ematea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila altua da baina, halere, ez du bermatzen Espainian ikuskaritza-jarduna arautzeko araudiarekin bat egindako auditoretzak beti antzemango duenik akats materialen bat, baldin eta halakorik badago. Akatsak hutsegiteen edo iruzurren ondoriozkoak izan daitezke eta akats materialtzat jotzen dira baldin eta, banaka edo batuta, eta urteko kontuetan oinarrituta, erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragin dezaketen arrazoizko ustea badago.

Auditoría y Gestión Empresarial, S.L. - Sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Guipuzcoa con fecha 30-3-93, Tomo 1336 del Libro de Sociedades, Hoja SS-6642, Folio 90, Inscripción 1ª
C.I.F. B-20443842 - Inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) con el número S0979



C/ Garibay, 21 -1º • 20004 SAN SEBASTIAN • Tfno.: 943 433 000 • Fax: 943 441 144 • audyge@audyge.com

AUDYGE
AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

Espainian kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudiarekin bat, gure iritzi profesionala ezartzen eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu ikuskaritza osoan. Eta, horrekin batera:

- Urteko kontuetan hutsegite baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik egoteko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak ezartzen ditugu arriskuhoriei erantzuteko, eta gure iritzia emateko oinarria eskuratzeko auditoretza-ebidentziak lortzen ditugu. Iruzurraren ondoriozko akats materialik ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondoriozko akats materialik ez aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak berekin erka dezake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.
- Erakundearen barne-kontrol esanguratsuaren inguruko ezagutza eskuratzen dugu, baina ez barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko, baizik eta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatu ahal izateko.

- Erabiltzen dituzten kontabilitate-politikak egokiak eta kontabilitate-balioespenak arrazoizkoak diren ebaluatzen dugu, Patronatuko kideek emandako informazioa aztertuta.

- Patronatuko kideek jarduneko entitatearen kontabilitate-printzipioa zuzen erabiltzen ote duten ondorioztatzen dugu eta, eskuratutako auditoretza-ebidentzia oinarri hartuta, Fundazioak jarduneko entitatea gisa jarraitzeko gaitasunari buruzko zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertaerei edo baldintzei lotutako zalantza materialik ote dagoen ebazten dugu. Zalantza materiala dagoela ondorioztatuz gero, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontuetan azalerazi den informazioari buruz ohartarazteko betebeharra dugu. Eta, azalerazi den informazio hori okerra bada, iritzi aldatua adierazi behar dugu. Gure ondorioak ikuskaritza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Dena dela, gerta daiteke ikuskaritza-txostena egin eta gerorako gertaerek edo baldintzek eragitea Fundazioa jarduneko entitatea izateari utzi behar izatea.

- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta aztertu egiten dugu urteko kontuek transakzio eta azpiko gertaera guztiak egoki jasotzen dituzten, Sozietatearen benetako irudia adierazteko moduan.

Patronatuko kideekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko, bai eta auditoretzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Patronatuko kideei jakinarazi dizkiegun arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horiexek baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Auditoría y Gestión Empresarial, S.L. - Sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Guipuzcoa con fecha 30-3-93, Tomo 1336 del Libro de Sociedades, Hoja SS-6642, Folio 90, Inscripción 1ª
C.I.F. B-20443842 - Inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) con el número S0979



C/ Garibay, 21 -1º • 20004 SAN SEBASTIAN • Tfno.: 943 433 000 • Fax: 943 441 144 • audyge@audyge.com

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Auditoría y Gestión Empresarial, S.L.
Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialean erregistratua, S0979 zenbakiarekin

15947933D MIGUEL ANGEL IGLESIAS (R: B20443842)

Firmado digitalmente por 15947933D MIGUEL ANGEL IGLESIAS (R: B20443842)
Fecha: 2021.04.28 13:04:56 +02'00'

Miguel Angel Iglesias Altolaguirre
Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialean erregistratua, 10.711 zenbakiarekin

Donostia / San Sebastián, 2021eko apirilak 19

INSTITUTO DE AUDITORES-CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL, S.L.
R.C.A.C. n.º S0979
SAN SEBASTIAN

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
AUDITORIA Y GESTION EMPRESARIAL S.L.
2021 Núm.03/21/01832
Informe de auditoría de cuentas sujeto a la normativa de auditoría de cuentas española o internacional

Auditoría y Gestión Empresarial, S.L. - Sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Guipuzcoa con fecha 30-3-93, Tomo 1336 del Libro de Sociedades, Hoja SS-6642, Folio 90, Inscripción 1ª
C.I.F. B-20443842 - Inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) con el número S0979



C/ Garibay, 21 -1º • 20004 SAN SEBASTIAN • Tfno.: 943 433 000 • Fax: 943 441 144 • audyge@audyge.com

# 2020 EKITALDIAREN KONTUAK LABURTUA



Anoeta pasealekua 5 – 20014 – Donostia – San Sebastián T: 688 618 768– fundazioa@kirolgi.org

KIROLGI

Talentua pizten

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

GIPUZKOA KIROLAK

# KIROLGI FUNDAZIOA 2020 eta 2019ko EKITALDI ITXIERAKO ETEn BALANTZEA (Eurotan)

| AKTIBOA | MEMORIA OHARRAK | 2020/12/31 | 2019/12/31 |
|---|---|---|---|
| **A) AKTIBO EZ-KORRONTEA** | | **4.861,60** | **4.861,60** |
| ***Ibilgetu ukiezina*** | 5 | ***0,00*** | ***0,00*** |
| ***Ibilgetu materiala*** | 5 | ***0,00*** | ***0,00*** |
| ***Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak*** | | | |
| ***Epe luzeko finantza-inbertsioak*** | 6 | ***4.861,60*** | ***4.861,60*** |
| ***Zerga geroratuen aktiboak*** | | | |
| **B) AKTIBO KORRONTEA** | | **399.855,28** | **253.593,14** |
| ***Erabiltzaileak eta bestelako berezko jardueraren zordunak*** | 6,9 | ***3.630,00*** | ***0,00*** |
| ***Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak*** | 6,9 | ***156.804,74*** | ***167.349,76*** |
| Ogasun publiko zorduna | | 156.804,74 | 167.349,76 |
| ***Epe laburreko periodifikatzeak*** | 6,9 | | **12.100,00** |
| ***Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak*** | | ***239.420,54*** | ***74.143,38*** |
| **AKTIBOA GUZTIRA (A+B)** | | **404.716,88** | **258.454,74** |

| | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | MEMORIA OHARRAK | 2020/12/31 | 2019/12/31 |
|---|---|---|---|---|
| **A)** | **ONDARE GARBIA** | | **138.619,44** | **138.619,44** |
| **A-I)** | **Fondo propioak** | 8 | ***138.619,44*** | ***138.619,44*** |
| | ***Fundazioaren zuzkidura*** | | ***30.000,00*** | ***30.000,00*** |
| | ***Erreserbak*** | | ***597.750,03*** | ***597.750,03*** |
| | ***Aurreko ekitaldietako soberakinak*** | | ***-489.130,59*** | ***-489.130,59*** |
| | ***Ekitaldiko soberakina*** | | ***0,00*** | ***0,00*** |
| **B)** | **PASIBO EZ ARRUNTA** | | **0,00** | **11.550,00** |
| | ***Epe luzeko zorrak*** | | ***0,00*** | ***11.550,00*** |
| | Kreditu-erakundeekiko zorrak | | | |
| | Epe Luzeko bestelako zorrak | | | 11.550,00 |
| | ***Zerga geroratuen pasiboak*** | | | |
| **C)** | **PASIBO KORRONTEA** | | **266.097,44** | **108.285,30** |
| | ***Epe laburreko hornidurak*** | 7 | ***266.076,76*** | ***72.082,98*** |
| | ***Onuradunak eta hartzekodunak*** | 7 | | ***10.000,00*** |
| | ***Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak*** | | ***20,68*** | ***26.202,32*** |
| | Hainbat hartzekodun | 7 | 20,68 | 26.202,32 |
| | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA ( A+B+C)** | | **404.716,88** | **258.454,74** |

Erantsitako memoriaren 1-16 oharrak 2020 eta 2019ko abenduaren 31ko egoera balantzean barneratzen dira

Idazkaria: Dª. Isabel Arriola Güenaga



Anoeta pasealekua 5 – 20014 – Donostia – San Sebastián T: 688 618 768– fundazioa@kirolgi.org

# KIROLGI FUNDAZIOA
## 2020 eta 2019ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION ETEn GALDU-IRABAZIEN KONTUA (Eurotan)

| | MEMORIA OHARRAK | (Zor)/Hartzeko 2020/12/31 | (Zor)/Hartzeko 2019/12/31 |
|---|---|---|---|
| **Jarduera propioaren diru-sarrerak** | *11* | ***3.247.100,00*** | ***3.356.100,00*** |
| *Sustapenak, laguntza eta lankidetzeen diru-sarrerak* | | *219.100,00* | *338.100,00* |
| *Ekitaldiko sobreakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak* | | *3.028.000,00* | *3.018.000,00* |
| *Laguntza eta diru kopuruen itzultzea* | | | |
| ***Laguntza eta besteengatiko gastuak*** | *11* | ***-3.119.981,32*** | ***-3.151.873,34*** |
| *Moneda laguntzak* | | *-3.119.981,32* | *-3.151.873,34* |
| **Jarduerako bestelako diru-sarrerak** | *11* | | ***69,58*** |
| **Jarduerako bestelako gastuak** | *11* | ***-127.118,68*** | ***-204.296,24*** |
| ***Hornidura soberakinak*** | | **0,00** | **0,00** |
| **A.) USTIAPENEKO EMAITZA** | | 0,00 | 0,00 |
| ***Sarrera finantzarioak*** | | | |
| ***Gastu finantzarioak*** | | | |
| **B) EMAITZA FINANTZARIOA** | | 0,00 | 0,00 |
| **C) ZERGA AURREKO EMAITZA** | | 0,00 | 0,00 |
| ***Mozkinen gaineko zerga*** | | | |
| **D) EKITALDIKO EMAITZA** | | 0,00 | 0,00 |

Erantsitako memoriaren 1-16 oharrak 2020 eta 2019ko abenduaren 31ko galdu irabazi-kontuan barneratzen dira

Idazkaria: Dª. Isabel Arriola Güenaga



Anoeta pasealekua 5 – 20014 – Donostia – San Sebastián T: 688 618 768– fundazioa@kirolgi.org

# 2020 EKITALDIAREN MEMORIA LABURTUA

Idazkaria: Dª. Isabel Arriola Güenaga



Anoeta pasealekua 5 – 20014 – Donostia – San Sebastián T: 688 618 768– fundazioa@kirolgi.org

KIROLGI
Talentua pizten

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

GIPUZKOA KIROLAK

# KIROLGI FUNDAZIOA

## 2020 EKITALDIAREN MEMORIA LABURTUA

### 1. Oharra- FUNDAZIOAREN JARDUERA

Kirolgi Fundazioa (Anoeta pasealekua, 5 – 20014 Donostia) Sektore Publikoko fundazio bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eratu baitzuen.

Kirolgi Fundazioaren xedea da Gipuzkoako kirola sustatzea eta garatzea, errendimendu-kirola lehenetsita, babesle publiko eta pribatuen bidez.

*2020 ekitaldian izan den jarduera*

Kirolgi Fundazioak bi lan-ildo garatu ditu, Patronatuak onartuak 2020. urtean.

1.- 2020. urtean maila gorenetan taldeak dituzten klub gipuzkoarrei laguntzeko lerroa. 23 klubek jaso dute laguntza eta talde onuradunak 32 izan dira.

2.- Banakako zein taldekako modalitateetan parte hartzen duten kirolariei laguntzeko lerroa. Laguntza-lerro hau bi jarduketatan banatzen da:

- Kirol-jarduerara bideratutako laguntzak.

144 kirolarik jaso dute laguntza hau.

- Formazio akademikora bideratutako laguntzak.

53 kirolarik jaso dute laguntza hau..

Era berean, Kirolariei Laguntzeko Programa garatu da, zeinaren bidez nortasun eta kirol garapenerako laguntza teknikoa ematen zaion. 45 kirolarik jaso dute laguntza hau.

## 2. Oharra-URTEKO KONTU LABURTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2020 ekitaldiko urteko kontu laburtuak Patronatuko presidenteak gauzatu ditu, Fundazioaren kontabilitate-erregistroak nola zeuden kontuan hartuta 2020ko abenduaren 31n, eta haietan aplikatu dira 1491/2011 Errege Dekretuak jasotzen dituen kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak, zeinaren bidez onartzen baitira Kontabilitate Plan Orokorraren egokitze-arauak irabazi asmorik gabeko entitateentzat, eta Kontabilitate Institutuaren eta Kontu Auditoretzaren 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenaren arabera aurkezten baitira. Horren bidez onartzen da irabazi asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Plana, eta Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza erakusten dute.

Azkenik, honi erantsita doazen urteko kontu laburtuen zenbateko guztiak euro-unitate osoetan ematen dira, errazago ulertze aldera.

Fundazioak bere finantza-egoerak prestatzeko funtzionamenduan dagoen entitatearen printzipioa erabili du, baina horrek ez du aldaketa handirik hurrengo ekitaldiko balio aktibo edo pasiboetan.

Honi erantsita doazen urteko kontu laburtuetan, batzuetan Fundazioaren Zuzendaritzak egindako kalkuluak erabili dira, bertan ageri diren aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso batzuk kuantifikatzeko.

Kalkulu horiek egitean, hau da, urteko kontu laburtuak prestatzean, eskura geneukan informaziorik onena erabili arren, litekeena da etorkizunean, hurrengo ekitaldietara begira, aldatu behar izatea (behera edo gora);halakorik egin behar izanez gero, modu prospektiboan egingo litzateke, kalkulu-aldaketaren ondorioak azalduz etorkizuneko irabazi-galeren kontuetan.

Merkataritza Kodearen 35.6 artikuluak ezarritako betebeharraren ondorioetarako, eta berdintasun printzipioa eta konparagarritasun baldintza aplikatzearen ondorioetarako, 2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokion urteko kontu laburtuak aurkezten dira 2019ko abenduaren 31n amaitu zen ekitaldiko kontu laburtuekin batera.

Fundazioaren jarduerak ez du ingurumenarekin loturiko erantzukizun, gastu, aktibo, hornikuntza eta arriskurik, adierazgarria izan daitekeenik ondarearekiko, finantza-egoerarekiko eta haren emaitzekiko. Hori dela eta, urteko memoria laburtu honetan ez dugu xehekapen espezifikorik sartu ingurumen-gaiei dagokienez.

## 3. Oharra-EMAITZAREN APLIKAZIOA

2020an, kontabilitate-emaitza 0,00 eurokoa izan da.

| Banaketa oinarria | Zenbatekoa |
|---|---|
| Ekitaldiko soberakina | 0,00 |
| Guztira | 0,00 |

| Aplikazioa | Importe |
|---|---|
| Aurreko ekitaldietako soberakinak | 0,00 |
| Guztira | 0,00 |

2019ko ekitaldiaren emaitza, 2020ko ekainaren 30ean Patronaturen bileran onartua, zero eurokoa izan zen.

## 4.Oharra-ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

a) Ibilgetu ukiezina

Epigrafe honetan sartuta dago Fundazioaren marka ofizialki erregistratzearen kostua, bai eta Interneteko hainbat domeinu ere. Kapitulu hau guztiz amortizatuta dago.

b) Ibilgetumateriala

Epigrafe honetan kostu hauek daude sartuta: ordenagailu bat, inprimagailua, telefono bat eta fax bat, Fundazioa eratu zenean erosi zirenak; eta beste ordenagailu bat, 2003an erosi zena. Kapitulu hau guztiz amortizatuta dago.

c) Finantza-baliabideak

Fundazioak erregistratutako finantza-baliabideak zehazten dira jarraian, bai eta erabili ditugun kalifikazioa- eta balorazio-irizpideak ere.

1. Finantza-aktiboak

- Merkataritza-eragiketen kredituak: bezeroak eta zordunak.
- Eskudirua eta beste likido baliokide batzuk.
- Jabetutako beste enpresa batzuen ondare-baliabideak.
- Beste finantza-aktibo batzuk, hala nola fidantzak eta gordailuak.

Maileguak eta kontuak kobratu gabe: amortizatutako kostuaren arabera erregistratzen dira, egindako diru-itzulketak kenduta, eta maileguen kasuan ez kobratutako interesak, eta kobratzeko kontuen kasuan egindako kontraprestazioaren egungo balioari dagozkionak.Fundazioak dagozkion zuzkidurak erregistratzen ditu, kobratu gabe dauden kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistratuta dauden liburuetako balioaren artean dagoen aldea dela-eta.

Finantza-pasiboak eta ondare-tresnak itundutako kontratu-akordioen edukiaren arabera sailkatzen dira, eta funts ekonomikoa kontuan hartuta. Ondare-tresna bat da taldearen ondarean hondar-partaidetza bat adierazten duen kontratua, pasibo guztiak kenduta.

2. Eskudirua eta beste bitarteko likido baliokide batzuk: balantze laburtuaren epigrafe honekin batera erregistratzen dira kutxan eta bankuetan, begi-gordailuak eta likidezia handiko beste inbertsio batzuk, kutxan azkar egin daitezkeenak eta beren balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

3. Finantza-pasiboak

- Merkataritza eragiketen zorrak: zenbait hornitzaile eta hartzekodun.

- Beste finantza-pasibo batzuk: zorrak hirugarrenekin, hala nola maileguak eta kredituak, pertsonengandik edo enpresetatik jasoak eta ez direnak kreditu-entitateak, fidantzak eta jasotakoa gordailuak.

Ordaindu beharreko kontuak: hasiera batean merkatuko kostuan erregistratzen dira, eta ondoren kostu amortizatu moduan balioesten, interes efektiboaren tasa metodoa erabilita.

d) Eratze-zuzkidura

Eratze-zuzkidurak ez du aldaketarik izan; beraz, 30.000,00 eurokoa izaten jarraitzen du.

## 5. Oharra-MATERIAL IBILGETUA, UKIEZINA ETA HIGIEZINEN INBERTSIOAK

a) Ibilgetu ukiezina

Atal honetan patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak kontabilizatuta daude, hain zuzen ere, Urizar eta Cía markaren jabegoa, 3.557,09 euro zenbatekoa, erabat amortizatuta; beraz, kontabilitate balio garbia 0 eurokoa da.

| | 2020 | 2019 |
|---|---|---|
| Ondarearen izena | 203. Jabego industriala | 203. Jabego industriala |
| **Hasierako saldoa** | 3.557,09 | 3.557,09 |
| Eskuratzeak | | |
| Amortizazio metatua | -3.557,09 | -3.557,09 |
| **Azken saldoa** | 0,00 | 0,00 |

Ibilgetu ukiezina
Erregistro marka: 3.557,09 euro

Amortizazioa: 3.557,09 euro

Amortizatu gabe: 0,00 euro

b) Ibilgetu materiala

Epigrafe honetan, zero euroko zenbateko garbia duten informazio-prozesuetarako ekipoak kontabilizatuta daude, erabat amortizatuta baitaude.

| | 2020 | 2019 |
|---|---|---|
| Ondarearen izena | 217. Informazio-prozesuetarako ekipoak | 217. Informazio-prozesuetarako ekipoak |
| **Hasierako saldoa** | 2.934,71 | 2.934,71 |
| Eskuraketak | | |
| Amortizazio metatua | -2.934,71 | -2.934,71 |
| **Azken saldoa** | 0,00 | 0,00 |

## 6. Oharra-FINANTZA-AKTIBOAK

Finantza-baliabideak

Jarraian, Fundazioak erregistratutako finantza-baliabideak eta erabilitako kalifikazio- eta balorazio-irizpideak zehaztu dira.

Finantza-aktiboak

- Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.

*Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak*: balantze honekin batera doan balantze laburtuaren epigrafe honetan eskudirua erregistratzen da kutxa eta bankuetan, begi-bistako gordailuak eta likidezia handiko epe laburrerako beste inbertsio batzuk, kutxan azkar egin daitezkeenak eta balio-aldaketak izateko arriskurik ez dutenak.

Fundazioaren diruzaintza-maila 239.420,54 eurokoa zen kontuak itxi zirenen datan (74.143,38 euro aurreko ekitaldian).

*Beste aktibo finantzario batzuk:* balantze laburtuaren epigrafe honetan, 4.861,60 euroko finantza-inbertsio bat erregistratu da (4.861,60 euro aurreko ekitaldian), hainbat kirol-klubetan Fundazioaren ekintzei dagozkienak, ondoren adierazten den moduan: ondare-tresnak.

Ondare-tresnak, guztira 4.861,60 eurokoak, gutxiengo partaidetzei dagozkienak:

Real Sociedad, SADren akzioak: 1.021,60 euro.

SD Eibar, SADren akzioak: 1.800,00 euro.

Gipuzkoa Basketen akzioak: 1.020,00 euro.

Real Uniónen akzioak: 1.020,00 euro.

Hona hemen aktibo finantzarioen banakapena:

| KATEGORIAK | MOTAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Epe luzerako finantza-tresnak | | Epe laburrerako finantza-tresnak | | GUZTIRA |
| | Ondare-tresnak | Deribatuak Bestelakoak | Ondare-tresnak | Deribatuak Bestelakoak | |
| | 2019 | 2019 | 2019 | 2019 | 2019 |
| **Bestelako aktibo finantzaioak** | **4.861,60** | | | | **4.861,60** |
| **Maileguak eta kobratzeko partidak** | | | | **167.349,76** | **167.349,76** |
| Administrazio publikoak | | | | 167.349,76 | 167.349,76 |
| **Epe laburreko periodifikazioak** | | | | **12.100,00** | **12.100,00** |
| **GUZTIRA** | **4.861,60** | | | **179.449,76** | **184.311,36** |

KIROLGI
Talentua pizten

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

GIPUZKOA KIROLAK

| KATEGORIAK | MOTAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Epe luzerako finantza-tresnak | | Epe laburrerako finantza-tresnak | | GUZTIRA |
| | Ondare-tresnak | Deribatuak Bestelakoak | Ondare-tresnak | Deribatuak Bestelakoak | |
| | 2020 | 2020 | 2020 | 2020 | 2020 |
| **Bestelako aktibo finantzaioak** | **4.861,60** | | | | **4.861,60** |
| **Maileguak eta kobratzeko partidak** | | | | **160.434,74** | **160.434,74** |
| Erabiltzaileak eta norberaren jardueraren beste zordun batzuk | | | | 3.630,00 | 3.630,00 |
| Administrazio publikoak | | | | 156.804,74 | 156.804,74 |
| **Epe laburreko periodifikazioak** | | | | **0,00** | **0,00** |
| **GUZTIRA** | **4.861,60** | | | **160.434,74** | **165.296,34** |

Idazkaria: Dª. Isabel Arriola Güenaga



Anoeta pasealekua 5 – 20014 – Donostia – San Sebastián T: 688 618 768– fundazioa@kirolgi.org

## 7. Oharra-FINANTZA-PASIBOAK

Pasibo arrunta

Epe laburrerako pasibo finantzarioen zenbatekoa **266.097,44** eurokoa da, xehetasun hauekin:

| | 2020 | 2019 |
|---|---|---|
| **Eragiketa komertzialetarako hornidurak** | **266.076,76** | **72.082,98** |
| **Zerbitzu-prestazioen hartzekodunak** | **0,00** | **26.161,91** |
| Beste hartzekodun batzuk | 0,00 | 492,47 |
| Centro Zurriola | 0,00 | 120,00 |
| Real Sociedad SAD | 0,00 | 0,00 |
| Laboratorios Nutergia | 0,00 | 0,00 |
| Piolet Gestión Deportiva 2016 | 0,00 | 6.710,64 |
| UTE Kirolen | 0,00 | 0,00 |
| CM Gipuzkoa | 0,00 | 0,00 |
| Ayestaran Trofeos | 0,00 | 338,80 |
| Posta eta telegrafoak | 0,00 | 0,00 |
| Tenniun Spain SLU | 0,00 | 0,00 |
| Asociación Cosmotalent | 0,00 | 18.500,00 |
| **Ordaindu beharreko merkataritza-efektuen hartzeko** | **0,00** | **10.000,00** |
| Klubak, lankidetza | 0,00 | 10.000,00 |
| Banakako bekak | 0,00 | 0,00 |
| **Bestelako zorrak administrazio publikoekin** | **20,68** | **40,41** |
| **Pasiboak zerga arruntagatik** | **0,00** | **0,00** |
| **GUZTIRA** | **266.097,44** | **108.285,30** |

266.076,76 euro hornitzea erabaki da, hurrengo ekitaldian kirolariekin, Erregina SM Koparen antolaketarekin eta egindako gastuekin zerikusia duten eragiketak ordaintzeko.

Adierazi behar da hornitzaileei ordaintzeko epea berehalakoa dela eta legezko ordainketa-epea, kasu bakoitzean, fundazioak jasotako ondasunaren edo zerbitzuaren izaeraren arabera dagokiona dela, merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutakoaren arabera.

## 8. Oharra- FONDO PROPIOAK

Eratze-zuzkidura

Eratze-zuzkidura ez da aldatu, 30.000,00 euroa izaten jarraitzen du.

| Kontuaren izena | Hasierako saldoa | Sarrerak | Irteerak | Azken saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Eratze-zuzkidura | 30.000,00 | | | 30.000,00 |
| Aurreko ekitaldietako soberakina | 597.750,04 | | | 597.750,04 |
| Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak | -489.130,60 | | | -489.130,60 |
| Ekitaldiko soberakina | 0,00 | 0,00 | | 0,00 |
| **Guztira** | **138.619,44** | **0,00** | **0,00** | **138.619,44** |

**2020 ekitaldikoemaitza: 0,00€*

## 9. Oharra-ERABILTZAILEAK ETA JARDUERAREN BERAREN BESTE ZORDUN BATZUK

Bezeroak eta zordunak

Jarraian, Fundazioak ekitaldiaren itxieran dituen saldo zordunak zehazten dira**, 160.434,74** eurokoak.

| | 2020 | 2019 |
|---|---|---|
| Erabiltzaileak, zordunak | 3.630,00 | 0,00 |
| BEZaren itzulketagatiko H.P. zordu | 115.975,45 | 115.975,45 |
| Konpentsatu beharreko BEZaren ondoriozko H.P. zorduna | 40.829,29 | 51.374,31 |
| Jasandako BEZagatiko Hpa | 0,00 | 0,00 |
| **GUZTIRA** | **160.434,74** | **167.349,76** |

Fundazioak 115.975,45 euroko BEZa itzultzeko eskatu zuen 2015eko ekitaldian. 2021eko martxoaren 23an, Gipuzkoako Foru Ogasunaren jakinarazpena jaso zen (13. Oharra)

## 10. Oharra-EGOERA FISKALA

Fundazioak betetzen ditu irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan aurreikusitako zerga-araubideaz baliatzeko beharrezkoak diren baldintzak. Arau horrek martxoaren 24ko 5/1995 Foru Araua, interes orokorreko jardueretan partaidetza pribaturako zerga pizgarriei buruzkoa, ordeztu zuen; urriaren 23ko 25/2018 Foru Dekretuan, urriaren 9ko GAOko 194. zenbakidun zerga araubidean, 2004ko urriaren 9ko Foru Arauan, argitaratu zen. Hori dela eta, gaur egun ez luke Sozietateen gaineko Zergaren salbuespenik izango bere jardueretan lortutako emaitzengatik.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ekitaldiko kontabilitate emaitza: ....................................... | | | 0,00 |
| | Gehikuntzak | Murrizketak | |
| Sozietateen gaineko Zerga .................. | | | |
| ZERGA-OINARRIA (EMAITZA) FISKALA) | | | 0,00 |

## 11. Oharra-SARRERAK ETA GASTUAK

### Sarrerak

Ia diru-sarrera guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenari dagozkio, 3.028.000,00 eurorekin, hau da, guztizkoaren % 93,25. Denboraldi honetan nabarmen handitu dira enpresa eta erakunde publiko eta pribatuen ekarpenak.

KIROLGI
Talentua pizten

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

GIPUZKOA KIROLAK

| | 2020 | 2019 |
|---|---|---|
| **Sustapenen, babesleen eta lankidetzaren diru-sarrerak** | **219.100,00** | **338.100,00** |
| Ulma, S.Coop | 5.000,00 | 5.000,00 |
| Real Sociedad | 52.600,00 | 52.600,00 |
| E.H.U. - U.P.V. | 5.000,00 | 5.000,00 |
| Irizar, S.Coop. | 90.000,00 | 90.000,00 |
| Mondragon Unibertsitatea | 5.000,00 | 5.000,00 |
| UNED - Bergara | 1.500,00 | 2.000,00 |
| ELMUBAS Ibérica SL | 0,00 | 10.000,00 |
| Beste batzuk | 60.000,00 | 168.500,00 |
| **Laguntzak eta dirulaguntzak itzultzea** | **0,00** | **0,00** |
| **Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak** | **3.028.000,00** | **3.018.000,00** |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 3.028.000,00 | 3.018.000,00 |
| **Bestelako diru-sarrera finantzarioak** | **0,00** | **0,00** |
| **Jarduerako bestelako ditu sarrerak** | **0,00** | **69,58** |
| **Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk** | **0,00** | **0,00** |
| **Gehiegizko hornidurak** | **0,00** | **0,00** |
| **SARRERAK GUZTIRA** | **3.247.100,00** | **3.356.169,58** |

Idazkaria: Dª. Isabel Arriola Güenaga



Anoeta pasealekua 5 – 20014 – Donostia – San Sebastián T: 688 618 768– fundazioa@kirolgi.org

**Gastuak**

Gastuei dagokienez, diru laguntzen zenbatekoa 3.119.981,32 eurokoa da, guztizkoaren % 96,08. Horien banaketa aztertzeko, honako sailkapen hau egin beharko litzateke:

| 2020 | | Guztizkoaren portzentajeak |
|---|---|---|
| **Dirulaguntzak eta bestelakoak** | **3.119.981,32** | **96,09%** |
| Klubei emandako laguntzak | 2.536.877,54 | 78,13% |
| Banakako laguntzak | 443.103,78 | 13,65% |
| Formazioa | 140.000,00 | 4,31% |
| **Beste gastu batzuk** | **127.118,68** | **3,91%** |
| Zerbitzu profesionalak. Kudeaketa | 120.490,99 | 3,71% |
| Bestelako kudeaketa gastuak | 45.627,69 | 1,41% |
| Atzerakadaren hondatze kredituak | -50.000,00 | -1,54% |
| Publizitatea | 11.000,00 | 0,34% |
| **GUZTIRA** | **3.247.100,00** | **100,00%** |

Berraztertzeko kreditu narriaduran ikusitako saldoa, Kutxa Fundazioak orain dela bi urte Kirolgi Fundazioaren zeukan zorraren kobroa jasotzen du. Honekin, lehen ezin zuten gastu eta aktuazio egin ahal izan dute.

| 2019 | | Guztizkoaren portzentajeak |
|---|---|---|
| **Dirulaguntzak eta bestelakoak** | **3.151.873,34** | **93,91%** |
| Klubei emandako laguntzak | 2.563.060,36 | 76,37% |
| Banakako laguntzak | 468.392,98 | 13,96% |
| Formazioa | 120.420,00 | 3,59% |
| **Beste gastu batzuk** | **204.296,24** | **6,09%** |
| Zerbitzu profesionalak. Kudeaketa | 189.020,88 | 5,63% |
| Bestelako kudeaketa gastuak | 43.775,32 | 1,30% |
| Atzerakadaren hondatze kredituak | -80.000,00 | -2,38% |
| Publizitatea | 51.500,04 | 1,53% |
| **GUZTIRA** | **3.356.169,58** | **100,00%** |

Errenta eta sarreren destinoaren betetze-maila

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legearen 29. artikuluaren arabera, fundazioaren kontzeptu guztiek lortutako diru-sarrera garbien % 70 gutxienez fundazio-helburuak betetzera bideratu beharko dira, eta gainerakoa, salmentak eta diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak kenduta, fundazio-zuzkidura handitzeko. Xede hori lortu den unetik aurrera, hiru urteko epean gauzatu ahal izango da.

Fundazioak sortutako borondatearen arabera zehaztutako helburuen gauzatzera lortutako errenta garbiaren %100 esleitu du.

*d) Administrazio-gastuak eta diru-sarreren xedea*

2020 ekitaldian, Fundazioak 24.815,66 euroko administrazio-gastuak izan ditu, gerentzia-kontzeptuan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren era Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 31. artikuluaren arabera, administrazio-gastuak honako hau dira:

- Ondasunak eta eskubideak zaindu, kudeatu eta defendatzeko ondare garbiko gastu zuzenen zenbatekoa. Ildo horretan, auditoria gastuak eta kontratatutako kudeaketa enpresaren gastuen% 30 kontabilizatu dira.

- Gobernu-Organoko kideen gastu justifikatuak itzultzea, beren eginkizunak betetzen dituztenean. Halaber, Kide horientzako ordainsarien zenbatekoa, eta zenbateko hori berariaz xedatzea fundatzaileak: ez da horrelako gasturik egin, ez 2020an eta ez 2019an.

- Fundazioaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak. Zerbitzu horiek gerentziakoak edo kudeaketakoak izango dira, eta fundazioaren izenean beste jarduera batzuk gauzatzekoak ere bai.

Aholkularitza-gastuen %100.

| Kontu Zk. | Galdu-irabazien kontu-sailetak | Gastuaren xehetasuna | Egozteko irizpidea | Zenbatekoa 2020 |
|---|---|---|---|---|
| 623 | Aholkularitza-zerbitzu | 24.816 | 100% | 24.816 |
| Administrazio-gastuak | | 24.816 | | 24.816 |
| Diru-sarrerak | | | | 3.247.100 |
| Ehuneko (% 20ko muga) | | | | 0,76% |

Administrazio-gastuak

| Ekitaldi | Muga> bietatik | | | Ondarearen administrazioaren gastu zuzenak(2) | Fundazioaren patronatuei ordain dakizkiekeen gastuak (3) | (4)=(2)+(3) Ekitaldian sortutako administrazio-gastuak | Gainditzen du (-) Ez du gainditzen (+) Gehieneko muga (1)-(4) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Diru-sarreren %20 (1) | Funts propioen %5 | | | | | |
| 2017 | 543.620,00 | 6.930,97 | | | | 0,00 | 543.620,00 |
| 2018 | 612.420,00 | 6.930,97 | | | | 0,00 | 612.420,00 |
| 2019 | 671.220,00 | 6.930,97 | | | | 0,00 | 671.220,00 |
| 2020 | 649.420,00 | 6.930,97 | | 24.815,66 | | 24.815,66 | 624.604,34 |

9/2019 legea, 29.artikulua eta 115/2019 Dekretua, 31.artikulua

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29.4 artikuluaren arabera, Fundazioak administrazio-gastuen muga betetzen du. Artikulu horren arabera, Administrazio-gastutzat joko dira fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, bai eta patronatuko kideek euren karguak betetzeagatik egindakoak, baldin eta, lege honetan ezarritakoaren arabera, horien gainean errenboltso-eskubiderik badute.

Administrazio-gastuen zenbatekoak ezingo du gaindituko puru hauetako handiena: funts propioen % 5 edo urteko ekitaldiko soberakinen % 20, behin kendu ondoren diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak, fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik.

Aipatu behar da, langile propiorik ez zuenez, 2020an lehiaketa bat egin zela fundazioa kudeatzeko, eta Kirol Management SLU enpresa hautatu zela. Enpresa honek eskaintzen dituen zerbitzuak administratiboak eta kirolekoak dira.

Errenta eta diru-sarreren jomuga:

| Ekitaldia | Diru-sarrerak (*) | Bideratuko den errenta | % | Fundazioaren xedeetarako erabilitako gastuak (gastuak eta inbertsioak) (1) | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | Aplikatu beharreko zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017 | 2.718.100,00 | 1.902.670,00 | % 70 | 2.249.134,80 | 2.249.134,80 | | | | 0 |
| 2018 | 3.070.949,12 | 2.149.664,38 | % 70 | 2.782.774,20 | | 2.782.774,20 | | | 0 |
| 2019 | 3.356.169,58 | 2.349.318,71 | % 70 | 3.151.873,34 | | | 3.151.873,34 | | 0 |
| 2020 | 3.247.100,00 | 2.272.970,00 | % 70 | 3.222.284,34 | | | | 3.222.284,34 | 0 |

(*) Ikusi Euskal Autonomia Erkideko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 30. artikulua

**Ekitaldian aplikatutako baliabideak:**

| | Zenbatekoa (ekitaldia) | | | GUZTIRA 2020 | GUZTIRA 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| a) Xedeak betetzeko gastuak | | | | 3.222.284,34 | 3.151.873,34 |
| | Funts propioak | Diru-laguntzak, donazioak eta legatuak | Zorra | GUZTIRA | GUZTIRA |
| b) Xedeak betetzeko inbertsioak | | | | - | - |
| Guztira (a + b) | | | | 3.222.284,34 | 3.151.873,34 |

| HELBURUAK BETETZEKO GASTUAK | 2020 | 2019 |
|---|---|---|
| Jarduerako bestelako gastuak | 3.247.100,00 | 3.151.873,34 |
| Administrazio-gastuak | -24.815,66 | |
| GUZTIRA | 3.222.284,34 | 3.151.873,34 |

**12. Oharra-PATRONATUKO KIDEAK**

2020an egindako hainbat izendapen politiko direla eta, Foru Gobernuaren Kontseiluak, 2020ko otsailaren 11n eta 18an egindako bilkuretan, erabaki zuen, hurrenez hurren, Jose Garikoitz Agote Alberro jauna, Proiektu Estrategikoen foru diputatuaren aholkularia, Turismoko zuzendari nagusi Iker Goiria Etxebarria jauna, eta Denis Itxaso Gonzalez jauna, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatua, Harkaitz Millan Etxezarreta, Kirol eta Kirol Saileko foru diputatu berria, ordezkatzea. Bi patroi berri horiek beren karguak onartu zituzten Patronatuaren 2020ko martxoaren 23ko bilkuran.

Bestalde, Joseba Miren Muxika Sarasketa jauna zoritxarreko istripu baten ondorioz hil zen, eta Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko urriaren 20ko bilkuran, Joseba Miren Muxika Sarasketa jauna, Herritarren Partaidetzarako zuzendari nagusia, Mikel Pagola Tolosa jaunarekin ordezteko erabakia hartu zuen.

Hona hemen Patronatuaren osaera:

| PATRONATUKO KIDEAK | |
|---|---|
| PRESIDENTEA | Harkaitz Millan Etxezarreta jauna |
| BOKALAK | Miren Elgarresta Larrabide andrea |
| | Iker Goiria Etxebarria jauna |
| | GoizaneAlvarezIrijoa andrea |
| | Jose Enrique Corchon Alvarez jauna |
| | Mikel pagola Tolosa jauna |
| | Isaac Palencia Caballero jauna |
| | Iker Sagasti Brocal jauna |

Adierazi Patronatuko kideek ez dutela inolako ordainsaririk jasotzen eta administrazio-gastuak deusezak direla. Era berean, ekitaldi-itxieran, ez dago aurrerakinik, kredituri, ez pentsioen, bizi-aseguruen, bermeen edo Fundazioak Patronatuko kideen alde emandako abalen konpromisorik.

**13. Oharra- ITXIERAREN ONDORENGO GERTAERAK**

Adierazi behar da Estatuko Gobernuak 2020ko azaroaren 9an aldarrikatu zuela "Alarma-egoera", 2021eko maiatzaren 9rako ezarritako Covid19ren pandemiagatik.

Fundazioak funtzionamenduan dagoen entitatearen printzipioaren arabera egin du 2021eko ekitaldiko aurrekontua, eta kontuan hartu du COVID-19ren egungo egoera, bai eta ekonomian oro har eta fundazioan bereziki izan ditzakeen ondorioak ere, eta ez dago arriskurik jardueraren jarraitutasunerako.

Azkenik, 2015eko ekitaldian 115.975,45 euroko BEZa itzultzeko eskaerari dagokionez, 2021eko martxoaren 23an, Ogasun eta Finantza Sailaren jakinarazpena jaso zen, 9.697,32 euroko behin-behineko likidazioa egiteko.

Beraz, jakinarazpen hori fundazioaren Batzorde Betearazleari helarazi zitzaion, azter zezan, erabaki egokiak har zitzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari helaraz ziezaion, alegazioak aurkezteko epeen barruan baitzeuden.

## 14. Oharra- 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**GASTUAK**

| **Funtzionamendu-eragiketak** | **AURREKONTUA** | **EGINA** | **DESBIDERATZEA** |
|---|---|---|---|
| *1.Dirulaguntzak eta bestelakoak:* | | | |
| *Dirulaguntzak* | **3.088.650,00** | **3.119.981,32** | **-31.331,32** |
| 1. Xedea Taldeen laguntzak | **2.351.400,00** | **2.536.877,54** | **-185.477,54** |
| Taldeak | 2.351.400,00 | 2.536.877,54 | -185.477,54 |
| Europako lehiaketak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Beste batzuk | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 2. Xedea | **300.000,00** | **443.103,78** | **-143.103,78** |
| Kirolariak | 270.000,00 | 443.103,78 | -173.103,78 |
| Kirolarien ikasketa bekak | 30.000,00 | 0,00 | 30.000,00 |
| 3. Xedea | **437.250,00** | **140.000,00** | **297.250,00** |
| Beste batzuk | 437.250,00 | 140.000,00 | 297.250,00 |
| *2.- Ustiapen kontsumoa:* | **262.265,00** | **131.490,99** | **130.774,01** |
| Publizitate gastuak | **94.000,00** | **11.000,00** | **83.000,00** |
| Euskarriak | 94.000,00 | 11.000,00 | 83.000,00 |
| Ekoizpena | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Zerbitzu-enpresak | **168.265,00** | **120.490,99** | **47.774,01** |
| Publizitate-kudeaketa | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kudeaketa-enpresa | 58.080,00 | 70.812,60 | -12.732,60 |
| Babesleen kudeaketa | 34.485,00 | 7.625,00 | 26.860,00 |
| Beste batzuk | 75.700,00 | 42.053,39 | 33.646,61 |
| Administrazio gastuak | | | |
| *5.- Beste gastu batzuk* | **28.066,00** | **-4.372,31** | **32.438,31** |
| Beste batzuk | 28.066,00 | 45.627,69 | -17.561,69 |
| Atzerakadaren hondatze kredituak | | -50.000,00 | 50.000,00 |
| **TOTAL** | **3.378.981,00** | **3.247.100,00** | **131.881,00** |

**SARRERAK**

| **Funtzionamendu-eragiketak** | **AURREKONTUA** | **EGINA** | **DESBIDERATZEA** |
|---|---|---|---|
| *1.- Erakundearen jarduerak sortutako diru-sarrerak* | | | |
| b) Sustapenen, babesleen eta laguntzaileen diru-sarrerak. | **3.378.981,00** | **3.247.100,00** | **131.881,00** |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 3.028.000,00 | 3.028.000,00 | 0,00 |
| Irizar, S.Coop. | 108.900,00 | 90.000,00 | 18.900,00 |
| Grupo ULMA | 5.000,00 | 5.000,00 | 0,00 |
| Deusto | 4.000,00 | 4.000,00 | 0,00 |
| Tecnun | 4.000,00 | 2.000,00 | 2.000,00 |
| EHU-UPV | 5.000,00 | 5.000,00 | 0,00 |
| Mondragon Unibertsitatea | 5.000,00 | 5.000,00 | 0,00 |
| UNED | 2.000,00 | 1.500,00 | 500,00 |
| Real Sociedad | 63.646,00 | 52.600,00 | 11.046,00 |
| Elmubas Ibérica SL | 12.100,00 | 0,00 | 12.100,00 |
| Beste batzuk | 141.335,00 | 54.000,00 | 87.335,00 |
| *4.-Finantza-sarrerak* | **0,00** | **0,00** | **0,00** |
| *5.- Ustiapen-sarrerak* | **0,00** | **0,00** | **0,00** |
| 6.- Gehiegizko hornidurak | **0,00** | **0,00** | **0,00** |
| **GUZTIRA** | **3.378.981,00** | **3.247.100,00** | **131.881,00** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Resultado ejercicio** | **0,00** | **0,00** | |

Pandemia egoeraren ondorioz diru sarrera pribatuak murriztu izanak eragin du, oro har, kontuen desbideratzea.

## 15. oharra.- Hornitzaileei egindako ordainketen atzerapenei buruzko informazioa

Hornitzaileei egindako ordainketen batez besteko epea 30 egunekoa da.

## 16.Oharra- INBENTARIOA

| Kontzeptua | Kontu aplikatua | Erosketa zenbatekoa | Faktura zk | Faktura data | Hornitzailea | IFK | 1. amort. Data | Amort. %, | Amortizatutako zenbatekoa | Kontabilitate balio garbia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ORDENAGAILU PENTIUM 11266 MM | 226 | 1.569,85 | 261 | 24/07/1998 | OMNI-WAR | B-20511069 | 31/12/1998 | 100% | 1.569,85 | 0,00 |
| IMPRAMAGAILU HP DESJET 720 C | 226 | 279,47 | 261 | 24/07/1998 | OMNI-WAR | B-20511069 | 31/12/1998 | 100% | 279,47 | 0,00 |
| TELEFONOA PH-TD-94 | 226 | 75,13 | 261 | 24/07/1998 | OMNI-WAR | B-20511069 | 31/12/1998 | 100% | 75,13 | 0,00 |
| FAXA PH-HFC-10 | 226 | 275,87 | 261 | 24/07/1998 | OMNI-WAR | B-20511069 | 31/12/1998 | 100% | 275,87 | 0,00 |
| ORD.AMD.K7-XO-2200 266 | 227 | 734,39 | | 29/10/2008 | Bergara S.L. | B-20805016 | 30/09/2004 | 100% | 734,39 | 0,00 |
| Material ibilgetua, guztira | | 2.934,71 | | | | | | | 2.934,71 | 0,00 |

| Kontzeptua | Kontu aplikatua | Erosketa zenbatekoa | Faktura zk | DATA | Hornitzailea | IFK | 1. Data | Amort. %, | zenbatekoa | balio garbia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Markak | 212 | 887,09 | 29502 | 30/07/1998 | Urizar y Cía | B-48116362 | 31/12/1998 | 100% | 887,09 | 0,00 |
| Markak | 212 | 334,00 | 114804 | 27/05/2003 | Urizar y Cía | B-48116362 | 30/09/2003 | 100% | 334,00 | 0,00 |
| Markak | 212 | 167,00 | 115070 | 11/07/2003 | Urizar y Cía | B-48116362 | 30/09/2003 | 100% | 167,00 | 0,00 |
| Markak | 203 | 1.593,00 | 125652 | 29/04/2008 | Urizar y Cía | B-48116362 | | 100% | 1.593,00 | 0,00 |
| Markak | 203 | 576,00 | 126262 | 18/09/2008 | Urizar y Cía | B-48116362 | | 100% | 576,00 | 0,00 |
| Material ibilgetua, guztira | | 3.557,09 | | | | | | | 3.557,09 | 0,00 |

*Presidentea*

Harkaitz Millan Etxezarreta jauna

*Idazkaria*

Isabel Arriola Güenaga andrea

Donostia, 2021eko martxoaren 31a